EGUNA JEL

"Gudari" aldizkingi bańia, datoŕen larunbatez agertuko da.

Lgo. urtia | 53'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 3'gna. eguaztena | 15 eunen

Zer egin nai dabe italiaŕak?

Atzo, paxistar batzaŕean, guda tresna ta beŕogetamabost urterarteko gustiak gudarako gertu ta erabilteko lege-gaya erabagi eben.-Lan bakoen alde.-Sena'ko ur-gorak nagitu. Veracruz'go auzia amaitu.-Beste izpaŕak.

MADRID'EN omenezko astea

Barcelona.—Atzo asi eben Madrid'en omenezko astea. Aste ori Madrid'ko gudarien eta gudalburuen kemena goraltzeko asi dabe.

Trivoli antzerkian egin zan jairik edafietariko bat.

Dirutza aundiak batu dabez.

Liburu bańi bat

Garate'taŕ Justa osalari ta euzkeltzale jakintsuak liburu bańi bat egin dau.

Garate jauna ezagun-ezaguna da gure erian orańarte egin dituzan idazlakaitik, eta oraingo onek bere ezaupidea ugarituko dautso.

Txalo ugari merezi dauz jaun onek euzko-jakintzearen alde dagiazan lanakaitik.

Oraingo oneri "La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Mogel" izenpurua imiñi dautso eta euzkeltzale bi ofeitzaz diardu.

Zorionik beroenak Garate jaunari ta liburu ori ainbat ugarien zabaldu dagiala opa dautsagu.

Loretxoa

A'TAŔ P. ANDERESOARI

Juan dan udaizkeneko
Iluntze batean,
Lore bat arki nuan
Bide basterean.

Udaran jaiotako
Loretxo liraña
Apaiña zera margoz
Gozua usaña.

Oi neretzat baziña
Loretxo kutuna!
Zu izango ziñake
Nere zoriona.

Bañan ez... neretzako
Etxera jaio zu;
"Gotzon" bateri itxa
Emana bait-dezu.

Gotzon! ¿Nora juan aiz
Bakaŕik utzita
Euretzat autu uan
Loretxo polita?

Ator len-bait-len eta
Loretxo au zaindu
Lore-lapuren batek
Ez dezan lapurtu.

Mugarte'taŕ Joseba.

EKAITZALE INGLATERA ALDEAN

Londres. — Aizete izugaŕiak sortu dira Britaniaŕ ugartietan. Escocia'n egundoko eduŕak egin ditu, eta aspaldiotan ez lango eduŕtzak dagoz.

Irlanda'ko itxasoan eguraldia oso txafa da, eta ontziak ozta-ozta dabiltz ibili.

LANBAKOEN ALDE

Londres. — Lanik eza atonduteko, eŕki batzuetan zertzuk lan egin agertu ditu Gobernuak Ingi Zuria deritzan idaztian.

Ola ta pabrikak etxesariz eraendu eta laguntzeko eskubidea emon yake eŕki batzuetako arduradunei. Efenta zergak bost ustez ordainduko ditue

Baltzu bakoitzaren domuko euneko 25 bildu leike auskrisiño bidez, ala Gobernuak ortarako izentau lituan bi miloe libratikoak. Arduradunak, 11 miloe giñoko aftuemon balioaz lanian asi dira.

Gefako augai edo munizioak egiteko ola bańiak lan ugari sortuko dabe. Gales'ko egoaldean eta Escocia'n augai ola ofeitan miloe batzuk eraigiko dira.

Egazkin olaetan bakaŕik 1.500.000 libra esterlina sautuko dirala adirazi dabe.

BEŔOGETAMABOST URTERAŔ TEKUAK!

Londres.—Italiaŕ paxistak batzaŕ nagusian jafaitu dabe. Gauŕ aftu daben erabagi garantzi andikua da.

Guda tresna eta beŕogetamabost urteraŕteko gustiak gudarako gertu ta erabiltia erabagi dabe.

Erabagi ori iñok min emongo ete dautsen bildutez aftutakua ei da.

Mussolini izan zan batzaŕ buru.

AUZIA AMAITU

Mexico.—Veracruz estaduko eleizak eregiteak sortu dauan auzia, berenez burutu ei-da ta azaŕez, be, lastei erabagiko ei da.

ATSEDEN-BILA VAN ZEELAND GOBERNU BURUA

Bruselas.—Ondo dakienak aitzen emon dabenez Van Zeeland atseden egiten Prantzia'ratu da, baiña Paris'en ez da geratu. Amabost egunen buruan. Paris'eratuko ei-da ta Prantzia'ko politika zuzendariekin baŕiketaldia orduantxo egingo ei dau.

AŔIZKURIK EZ EI DAGO

Paris.—Sena'ko ujoldeak ez geitu ta ez gitxitu ez ei-dira egin egunotan eta ofetan aituak diranak diñoenez, gañezkaŕik ez ei dabe egingo.

AUSTRIA'N EREGERIK IZATERIK EZ DAU NAI MUSSOLINI'K AUSAGO

Berlin.—Austria'ko erege jartearen auŕka "Giornale d'Italia"k argitaldu dauan idazlani buruz Der Angriff idazleak Habsburgotaŕen autuoi amaitu ta erabagi zala diño. "Giornale"n idazlan ofek Mussolini'ren asmuak daralcusguz—diño Der Angriff'ek—eta Mussolini'ren auŕerako jokerea latefi afteko arazuetan.

ZER GALDUAK GALTZERIK NAI EZ

Londres.—Burgos'ko "Gobernua"ri Ingelatefa'k salerosketa - ordezkaŕiŕik bialdu dautsona guzuŕa da. España'n Ingelatefa'k daukazan zer galduak galtzerik ez dau nai. Ingelatefa'ren zer-galduok Jerez ardauak, igaliak eta piritak dogus.

DARDANELOS-ZEAŔ RUSIAŔ GUDONTZIAK

Ankora. — Dardanelos-zeaŕ gudontziak igaroko dirala aitzzen emon dautso Rusia'k Turkia'ko Gobernua'ri.

Rusiaŕ gudontziak duazana oraintxe lenengoz aitzen emon da. España'ko goraberak dirala-ta, paxista laterien gudontziak España'ko asaldarien gudontziei laguntzen dautselako -edo ei datoz rusiaŕ gudontziok.

HINDEMBURG'EN GUDARI LAGUNTZALEA IL DA

Gleeweth. — Azkenengo egunetako guda-ekiñaldi baten il da tanke-aurkako gudari-talde baten buru zan Hindemburg'en gudari-laguntzalea Madrid'en.

ALKAŔ AŔTU EZIN

Londres.—Italiaren eta abisiniaren artean buŕukak egon ei-dira Jibutti'n, pantzetaren mende dagon Somalia'ko uriburuan.

Lana Zuzendaritza Nagusia

Bere lanetarako bein-beingoz edo erabat langileak artu beaŕean arkitzen diran Euzkadi'ko nagusi eta Bazkunei dijoakie oar au. Jakin bezate, Langileí Lana opatzeko Idazkolak bańaŕik eman ditzaketela langileak. Euzkadi'ko Lana Auŕebegiramena-Eramaneka-ri Burukideak igazko arazoaren 3'gaŕenez eta lotazilaren 24'gaŕenez eman zituan Erabakiak dioten lez osatuta ari diran Idazkolak alegia. Ortaz, orain arte jardun izan diran mueta guzitako Idazkola Lan-Opalari guziak, eginkizunik gabekotzat jo bitez. Baita zer-nolak eraginda, Igitutako Gintzen Sailean eratu izan zana ere.

Agindu onen ausleak, alperik esangodute ezjakitea dala-ta agindua ausi dutela. Ala ere, gogoŕ zigortuak izango dira.

Bilbao, 1937'gn. otsailak 27.—Lana Zuzendari Nagusia, Santines'daŕ Miloel.

AVILA'KO guda oñetan

Madrid.—Avila'ko guda-oiñetan aufera duaz eŕi-aldezleak eta uste-gabe kilometro batzuk sail kendu dautsez paxistei ta oraiñ paxistok gudari talde aundiak eruan dabez guda-oin ofeitara ta oraiñ aufera egitea sail da.

LORKA INGURUAN

Egazkin bat luŕeratu

ARERIUEN EGAZKIN BATEN LUŔERATZEA

Andujar.—Lorca inguruan goizaldean paxisten egazkin bat luŕeratu da. Espiel inguruetan guda-oiñak eta bastefak ikusten ziñarduan.

Bulzkiña aberiatu yakoen eta egazkiñoi luŕeratu zanean gudari-agintari bi ta pilankista bi espe aftu ebezan.

Gudari-agintariok Rafael Bernabeu ta Guillermo Vellaveche dira ta paxisten agintaritza nagusiarentzako izpaŕekin uazan.

Gudean asi zanean batoi osagile ikasle zan eta gudarostean saftu zan.

Areriuok dabezan asmuak daralcusguez orei aftu yakoczan agiri batzuk.

Alemanak eta italiaŕak

Mac Namara ingeles gudalburuak diñona

Ezin dira konpondu

Madrid.—Ingalandaŕ Mac Namara kapitana izan da Madrid'en. Onek paxisten luŕetara ibilera bat egin dau, eta bere eretxijak agertuaz, idazlan eta azalpen sakonak agertu dau. Mac Namara India'n sei urtean egon da agintari lez, eta kapitan jakintsutzat aftuta dago. Au dala ta bere azalpenak gafantzi aundia dauke. Diño alemanak eta italiaŕak ez dirala konpondu-ten. Alemanak ifi egiten ei dautse italiaŕei, "Makafonis" daitzu-en ei-dautse. Italiaŕak afo agertuten ei dira. Abisinia'ko lufaldiak eskuratu dabezala-ta.

Ostera alemanen agintariak gogoŕ ekiten ei dautse eta baita agertu euran gudariak askotaz ob-k dirala, Mussolini'ren gudariak baño. Alkondara baltzan agintariak diñve eurer gudariak obak dirala. Eta bi-rondatez diarduela. Ostera alemanak naitanaiez ekafitakuak dirala. Bien aftian alde aundia dago. Batzuk euran asmuafen gogozko jokatuten dira. Besteak naita naiez, Diñoanez edestiak ezin aztu ixango dau, Gobernuaren onduan gudatuten diran gudarien maitasuna. Onek kementsu jokatuten ei-dira, euren izkilua eskuetatik itxi barik. Onek edestiko gauzarik goraigafiena egin ei-dabe. Lenengo egunetan ezetariko ikaskixun barik, eta zortzi la-gunentzako izkilu bategaz, ain gudarozte aundiari agiñak erakutsi izan eutsezalako.

"Gudari"

LARUNBATEZ AGERTUKO DA -- ALDIZKINGI BIURTUTA --

Gogoratzen zara Irakufle, "Gudari", eritxon asteroko bulaftsu arekin? Betiko il ete zan oldoztu izango zendun oraiñ ezkero ezta?

Ba okef ibili zara Irakufle, "Gudari" datofen larunbatez urtengo da bafiz txaldera, eta jai egunetako jantzita urten be. Aldizkingi edo "rebista" biurtu ta urtengo da. ¡Eta zelako aldizkingia! ¡Ikusgafia Irakufle, ikusgafia! Zoragafizko argaz kiz ornidua. Idazlan labur eta maintzuz betia. Orain aftekorik ede tena.

¡Gertau Irakufle "Gudari" erostekо! ¡Erosi "Gudari"! ¡Zabaldu "Gudari"!

¡¡Aufera "Gudari"!!

Ingeles izpaŕingiak diñoena

Madrid'go suagak.-Ogetamasei gabetan suagatu dabe.-Alemani'ren izkiluak eta euretan eralgi dana.-Izkilu ugari bai, baña dirurik ez.-Beste izpaŕak.

MADRID'GO IZPAŔAK

Londres.—Madrid'en dauan izpaŕkariaren idazkia argitaldu dau "The Times" egunkariak, eta ilaren 10'gn. zenbakian azalpen onelk agertu ebazan.

Otsalaren 18'gn. idazten diardut Madrid uri onetan. Gabeko amaŕ ta erdietan egazkin-otsa izan da, eta efitafak esnatu ditu. Iru aldiz izan da ofela.

Ostera bakoitzean amabi bomba jaurti ditue, eta batzuk uri laŕu jausi ziran afen, geyenak kanpoan egin ziran. Amabost bat lagun il zituen eta 40 zauritu.

Aldeztuteko ta zainduteko, argi makal bi eta egazkiñen aurkako suagakarien eta izkilazkaŕen eraso batzuk baño ez zituen izan erantzunez. Egazkiñak oso goi egatu ziran.

Bost astetan bonbardeorik ez da izan eta jendea bilduŕari lotsa galduta egon da. Ofegaitik bart, gudariak etxe batzuetako leiotarantz su egin eben, argiak itzali egiezan.

Ufilaren 30'etik, 36 bidar izan dira gabeko egaketak.

Jarama'ko buŕukea nork irabazi oindiño ez da argitu. Valencia'rako bidea aftu nai daben paxista salai alde bietatik eraso eutsen efizaleak goizean goiz, eta bultzada ori gero ta auŕerago daroie, baratz eta astiro baña sendoro, orden.

Madrid inguruko buŕukaldien ondorenaluzaroan agertuko da ez lastefean.

ALEMANI'REN IZKILUAK

"Sunday Express"ek, otsalaren 21'gn. artikulo bat dakaŕ Alemania'tzaz.

Guda izkiluak. Zertzelada osoz argitu iradan lau urtetan zenbat izan diran lenengoz adirazi dabe.

Dirutza auxe baño ez: 2.500.000.000 libra esterlina. Urtero, batez beste. 625 miloe libra.

Ingelatefa'k, ostera, 800 miloe libra.

Guda izkilu geitzerako egundo ez da iñun be, edu ori diru eralgi.

Alemandaŕ diru-aftuemon batza batek emon dautse dirutza ori.

Diru-aftuemon-batza ofetako buru Hjalmar Schacht dogu.

DIRURIK EZ

Idazlan ori onantxe burutzen dau idazleak. Alemania'k beste edozein Latefi'k baiño izkilu geiago dauka, baiña izkilutan eralgi dauan-edu eralgi ostean janari ta beste gudako premiñetarako ez dauka eskuafterik. Alemania'k guda-labuŕean ondo jokatuko leuke baiña luzean ez.

Ofa zer dala ta doguzan bakoitzaren bakoitzaren 66 miloi gizaseme. Ingelatefa'n baiña ez al-dogu egundo be izango olako bakerik.

EZ ERITXON ONDO

Gudarosteari España'ko auzietan saŕtzea ez eritxon ondo ta, alemandafak ausi ofetan lenengoz egazkiñekin, egazkin-zuzendari ta egazkin aurkako kañoiekin saftu ziran. Alemandaŕ egazkiñak, be, bardabez euren akatsak. Egazkin bafiak ondo gertetaka dagoz. Bulzkin batzuk beaŕ baizen indaftsuak ez dira.

Egazkin-zuzendari ikasitan baiño egaz kiñetan geiago dauke.

IZKILODUNAK

Geroago gudarosteei buruz auxe diño. "Gudarosteari jaramon gitxi egiten dautse. Egazkin eta egazkinlariak dabez begiko. Batzuei jaramonik ez egitearen eta besteak begiko izatearen oñaŕi, bakaŕa politika-asmuetan dogu. Gudarostea bere buruaren jaube da ta nazitaŕen aurka be, jokatu daike. Egazkin eta egazkinlariak baiña Goering gudalburuaren agindupean doguz ta nazional-sozialisteei laguntzeko beti gertu. Gudarik sortuko ba'litz Goering izango genduke agintari nagusi."

Eŕi-artean

Inglatefa'ren guda-izkillu-geitzeak konkortuta laga dauz

Inglatefa, itxasoen jaube, goyen jaube egin guraz

Lateŕiak egunean baiño egunean nastuago yuakuz Londres'ko politiko aituak diñoenez. Bost urteren buruan guda-izkilu-geitzen, luŕeko, itxasoko ta egazkinlari gudarostе ornitzen mile miloi libra esterlina eralgiko dauz Inglatefa'k.

Dirutza oŕez gaiñera Neville Chamberlain'ek aldundiratu daben lege-asmoan eskatzen diran Inglatefa'ko buru zaintzerako laureun miloi libra esterlina doguz eŕi zainketarako geitu dabezan gudari ta guda-galen eusteko beaf diran beŕeun eta larogei miloi libra. Guzti oŕeik lengo dirutzaren-gain

Len aitatu doguzan mile miloi libra esterlinakaz gudea edo gefea datorkenerako ta lan-sarfak geitu-agifiean be janariak eta lengaiak ekafi ta gordeko dauz.

Diru-eralgitе ori dala ta Inglatefa'n zizak geitu beafa izango dabe, len, be, naiko astunak dabezanaren.

Oraingo diru-arazo eralkundeak eta Inglatefa'ko irabazpideak nolzok jasoafen, be, zlzoi erantzuteko moduan daukaz inglatefaŕok. Ofaitiño gauzak garestitzen, asi dira ta diruak Diru-etxetatik ataŕaten, be bai.

Londondaŕ batzuei baiña gudarik ez dagonarte guda-izkilu-geitzen zoŕak egitea txarto deritxoe.

Orain-arte itxasoetako jaun eta jabe izan dau Inglatefa auŕerantzean, be, jaun eta jabe izateko asmuetan dogu, munduan danik gudontzi talderik ugariena ta aundiena egingo dau: egazkiñetan, be, iñork baiño geiago egin nai dauz ta goiko jaun egiteko asmoz dogu ausago.

Europa'ko guda-zaletasuna baretzeko Inglatefa'ren itxasoko, egazko ta luŕeko guda-tresnak geitzeko asmoekogia izan da kontian, eta Inglatefa bietzetaragino guda-izkiluz ornidu ko zana ikusi dabenean Europa'ko guda-gafa berez itzali da.

Gaur egunean, be, batzuk uste daben aul ez dogu Inglatefa; ez dago Europa'ko ta Amerika'ko Lateŕi batzuk uste izan daben baizen ornitzeko guda-izkiluz.

Oraindiño baiña Inglatefa'ren eskuarte zabaltze asmoak ez dira egi biurtu ta Inglatefa'ren guda-izkilu geitze aundi ori gudea zer dan ez jakiteak eta erantzupen-nai ezak eragotzi izan dau apur bat.